

BIZI IKASTEN

GURASOEN ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANAK

- **Erlazio ona beharrezkoa da**

Zaila bezain interesgarria eta beharrezkoa da erlazio ona izatea arlo guztietako emaitzak hobetzea baldin bada helburua, behintzat.. Erlazio txarrak sortzen badira, arazoak ere izaten dira eta horrek komunikazioa eta kolaborazioa zailtzen ditu.

- **Beldurrak eta zihurtasun faltak gainditu**

Batzutan, familiak beldurra dio eskolari. Eta beste batzutan, eskolak beldurra die hainbat familiari.. Beldur horrek, defentsan jartzen ditu familiak eta defentsan irakasleak, defentsan eskola... . Hau guztia gainditu behar da.

- **Eskolak mugak ditu**

Familia da heziketaren arduradun nagusia.

Eskolak hezitzen du, noski baietz! Baina neurri batean soilik.

- **Familiak mugak ditu**

Askotan, aitak eta amak biek lana egiten dute. Horrela izatea nahi dugu, hala sinisten dugu, eta, errealitatean hala da. Gurasoak nekatuta iristen dira etxera beren lanetatik, seme-alabekiko atentzio, dedikazio eta ondorio guztiekin. Gainera, askotan, guraso bakarra izaten da, egoera zailduz. Hezitzeko mugak nabarmenak dira.

Sarritan, irakasleei iruditzen zaie familiek ez dutela nahikoa egiten eta familiei ere iruditzen zaie irakasleek ez dutela egin beharrezkoa egiten. Errua, berez, ezin zaio inori bota. Bi aldea umea ongi hezitzea nahi dute.

Guztion artean erlazio hobeak izateko errespetatuak sentitu behar gara(irakasleok, langileak, familiak...) Beraz elkarlana da bidea.

- **Gurasoek eskola baikortasun ikuspuntutik ikusita**

Honek, alde batetik eragin positiboa du seme-alaben emaitzetan. Bai arlo akademikoan eta bai egokitze, motibazio, portaera, jarrera eta abarretan ere.

Alaba-semeen gurasoek eskola baloratzea eta irakaleekin batera lan egitea ikusten dutenean errendimenduan hobetzen dute, seguruagoak sentitzen dira eta horrek lagundu egiten die heziketa prozesuan.